



Erdal jatorria duten ikasleentzako harrera- eta murgiltze-plana

Zirimola Ikastolen Aisialdi Taldea

- Euskal Herriko Ikastolen elkarteko hezkuntza ez-formala bideratzen duen Aisialdi Taldea.
- Helburu orokorra:
 - Pertsona erdigunean testuinguru inklusiboak sustatuz, Euskal Herriko haur, gazte eta nerabeen arteko harremanak sustatzea.
 - Hezkuntza ez-formalaren bidez, euskara eta euskal kultura ardatz, aisialdi eredu hezitzailea eskaintzea.
- Zirimola Hezitzaile Eskola, eskolaz kanpoko hezitzaileen formazioak, soziolinguistika pedagogikoa lantzeko egitasmoak eta aisialdi hezitzailean oinarritutako egonaldiak eta udalekuak.

Pulunpa (e)ta Xin! proiektua

- Euskal Herrira iritsi berria den erdal jatorriko ikasleentzat garatutako **harrera- eta murgiltze-plan integrala**.
- Iritsi berriak diren ikasleen **sozializazio-prozesuan** eta horien **testuinguruarekiko, euskararekiko eta euskal kulturarekiko atxikimenduan** laguntzeko eta eragiteko sortua.
- Egitasmoa **Ikastolen Hizkuntza Proiektuan** kokatzen da, **Zirimola Ikastolen Aisialdi Proiektua** du oinarri.
- Gutxiagotutako hizkuntza baten testuinguruan, kulturartekotasunetik abiatuta lan egiteko **zortzi saioko programa** proposatzen du, baita **Harrera On Baterako Endekalogo** bat ere.

SARRERA. Nondik dator?

2022-23 ikasturtea

Pedagogia.
GRADU AMAIERAKO LANAK (Odei Guirado eta Jone Rua)

- *Pulunpa (e)ta Xin!* harrera-programaren sorkuntza.
- Gela barrua ikertu zen (Orereta ikastola).

- Gela barruko eta kanpoko prozesuaren ebaluazio integrala

- Ikasgelan egongo den bigarren pertsona baten beharra.
- Ikastolan modu autonomo batean programa inplementatzeko baliabideak.

2023-24 ikasturtea

MASTER AMAIERAKO LANAK (Jone Rua)

- Ikerketa-ekintza prozesuak beste hiru ikastoletan.
 - San Bizente (Oion), Lazkaoko ikastola eta Seber Altube ikastola (Gernika).

- Proiektua beste ikastoletan txertatzeko plan bat diseinatzea (esperientzietatik abiatuz).
- Proiektua txertatuko den eskoletan jarraipen sistematizatu bat egitea eta diseinatzea.
- Proiektua zabaltze aldera, beste adin tarte batzuetako haurrentzako zuzendutako programa garatzea.

Helburu orokorrak

H1. Ikastolara iritsi berriak diren haurrei **harrera egitea testuinguru seguru eta konfiantzazkoan.**


H2. Ikastolara iritsi berri diren haurrarentzat, testuinguru berriarekin harremantzeko, **ludikoak izango diren egoera gozagarriak eskaini eta horrekiko atxikimendu emozionala sustatzea.**

H3. Ikastolara iritsi berri diren erdal jatorriko haurren **sozializazio- eta euskalduntze-prozesua kulturartekotasunean oinarrituta bideratzea.**

H4. Harrera egiten duten haurrek **emozio eta sentipenen bitartez** iritsi berriak diren haurren **testuinguru kulturalarekin konektatzea.**

H5. Iritsi berriak diren erdal jatorria duten ikasleen **garapen pertsonalerako euskara oinarrizko elementua** izaten laguntzea.

ESKU-HARTZE PROGRAMA-Kronogramaren adibidea



Ondorio nagusia

- Hezkuntza formalean eragin daiteke hezkuntza ez-formalaren bitartez erdal jatorria duten haurren euskalduntze-prozesuan eta baita horien euskara eta euskal kulturarekiko atxikimenduan ere.